**<u>INGURUMENEKO TOKIKO FOROAREN BILERAREN AKTA (4-07-06)</u>**

LEHENDAKARIORDEA
FERNANDO BURZAKO, Ingurumen Zinegotzia

IDAZKARIA:
ARANTZA CABEZA and.

INGURUMEN TEKNIKARIA:
JOSU ATEKA jn.

INGURUMEN AHOLKULARIA:
JULEN REKONDO jn. (Ingurune)

ETORRI DIRENAK:

DIMAS RAMOS jn.
PATXI DIAZ jn. (Ibilbide ekologikoak)
JON GALLASTEGI jn. (Fadura Institutoa)
PEDRO BARRENETXEA (Aixerrota Institutuko irakaslea)
CELIA MARAÑON and. (Ekologistak Martxan)
PEDRO ORTUETA jn. (Ekologistak Martxan)
XABIER BUENETXEA ARAGUES jn. (Ingurumenean aditua).
JOSE ALMEIDA jn. (Getxo Enpresa eta Merkataritza)
CARLOS ARANA jn. (Fegevol, Getxoko Entitateen Federazioa)

Getxon, 2006ko uztailaren 4an. Gaurko arratsaldeko zazpietan Getxoko Ingurumeneko Tokiko Foroa batzartu da. Goian aipatu diren jaun-andreak etorri dira.

Ondoko gai hauek aztertu dira, emaitza honekin:

**GAI ZERRENDA**

**1. Ingurumeneko Tokiko Foroaren 2006ko ekainaren 21eko batzarreko akta onestea.**

**<u>ACTA DE LA REUNIÓN DEL FORO LOCAL DE MEDIO AMBIENTE (4-07-06)</u>**

VICEPRESIDENTE
FERNANDO BURZAKO, Concejal de Medio Ambiente

SECRETARIA:
Dª. ARANTZA CABEZA

TECNICO DE MEDIO AMBIENTE:
D. JOSU ATEKA

CONSULTOR MEDIOAMBIENTAL:
D. JULEN REKONDO (Ingurune)

ASISTENTES:

D. DIMAS RAMOS
D. PATXI DIAZ (Itinerarios Ecológicos)
D. JON GALLASTEGI (Fadura Institutoa)
D. PEDRO BARRENETXEA (Profesor del Instituto de Aixerrota)
DÑA. CELIA MARAÑON (Ekologistak Martxan)
D.PEDRO ORTUETA (Ekologistak Martxan)
D. XABIER BUENETXEA ARAGUES (Experto Medioambiental).
JOSE ALMEIDA (Getxo Empresarial y Comercial)
D. CARLOS ARANA ( Fegevol, Federación de Entidades de Getxo)

En Getxo, a 4 de julio de 2006. Se reunió a las diecinueve horas de este día el Foro Local de Medio Ambiente de Getxo, con asistencia de los capitulares reseñados.

Se aborda el Orden del Día, con el siguiente resultado:

**ORDEN DEL DÍA**

**1. Aprobación del Acta de la reunión del Foro Local de Medio Ambiente celebrada el 21 de junio de 2006.**

Akta aho batez onetsi da.

Se aprueba por unanimidad dicha acta.

Gero eztabaidari ekin dio Jose Almeidak. Haren elkarteko kide batzuek esan diote merkatari batzuentzat oso garesti dela zaborra biltzeagatik ordaindu behar duten tasa. Azaldu dutenez, hirukoiztu edo laukoiztu egiten zaie etxean ordaintzen dutenaren aldean; sortzen duten zaborra, ordea, askozaz ere txikiagoa da.

Seguidamente se comienza un debate en el que Jose Almeida, comenta las opiniones transmitidas por algunos de sus asociados, en torno al alto coste que supone para algunos comerciantes la tasa que tienen que abonar por la recogida de basura, que, según manifiestan se les triplica o cuadriplica en relación a la que abonan en sus domicilios, mientras que el volumen generado es mucho menor.

Teknikariak azaldu du tasa ezberdinak daudela, irizpide ezberdinen arabera; lokalaren metro karratuak, zona, e.a.

Según manifiesta el Técnico existen diferentes tasas en función de metros cuadrados de local, zona....

Etorri diren foroko kideek adierazi dute beharbada irizpide batzuk berriro aztertu behar direla eta berriak sartu ere bai. Izan ere, tasak diskriminatzaileak dira bizilagunekin.

Se plantea entre los asistentes la necesidad tal vez, de reconsiderar criterios e incluso introducir otros nuevos, ya que, las tasas son también discriminatorias con los vecinos.

Ondorioa: Tasen politika birplanteatu beharko litzateke.

Conclusión: habría que replantear la política de tasas

Patxiren ustez gai interesgarria da, aldundiak argitaratutako hondakin plana kontuan izanik.

A Patxi le parece un tema interesante a tratar, teniendo en cuenta el Plan de residuos publicado por Diputación.

**1. Portu Zaharreko obra: Bidea zabaltzea.**

**1. Obra en el Puerto Viejo: Ampliación del vial.**

Foroko kideen artean, gehienak proiektuaren aurka daude, diseinatu den moduan behintzat. Azaldu dutenez, ez da beste alternatibarik eskaini, esaterako, semaforoa ipintzea, horma zabala kentzea eta estuago bat jartzea, espazio horretan bizikleten eta oinezkoen bideak konpartitzea, e.a. Ekimen pribatua da, bioaniztasuna inola ere aztertu gabe, interes orokorren gainetik, bidegorria egiteko aitzakiarekin.

Entre los miembros del Foro, hay un posicionamiento mayoritario en contra del proyecto tal y como se ha diseñado, alegando que no se han presentado otras alternativas, como pudiera ser la colocación de un semáforo, retirar el muro ancho que hay y colocar otro mas estrecho, compartir bici con peatones en este espacio...; y que se trata de una iniciativa privada realizada, sin ningún estudio de biodiversidad, por encima de los intereses generales, bajo la excusa de hacer un bidegorri.

Foroko zenbait kidek eta kolektibok proposatu dute proiektu horren aurka prentsa-oharra idaztea eta komunikabideei bidaltzea. Batzarrean prentsa-komunikatua irakurri da eta beste modu batez idaztea erabaki da, ideia nagusiak mantenduz. Guztiak ados daude, baina batzarrera etorri ez diren foroko gainerako kideei galdetzea adostu dute.

Se propone por parte de varios colectivos y miembros del Foro redactar una nota de prensa en contra de dicho proyecto y enviarlo a los medios de comunicación. Se lee en la reunión un comunicado de prensa, y se acuerda darle otra redacción, aunque manteniendo las ideas de fondo. Todos los asistentes están de acuerdo en ello, aunque se decide hacer una consulta al resto de los miembros del Foro que no han acudido a la reunión.

**3. Foroaren lan planaren diseinuarekin jarraitzea: batzarren egutegia, aztertu beharreko gaiak, foroan ordezkaritza, e.a.**

Foroaren aurreko batzarrean hartutako erabakiez gain, gai hau baztertu da abuztuko oporrak eta gero lehentasuna emateko. Akta honetan, foroaren aurreko batzarrean hartutako erabakiak gogoratu dira. Honako hauek dira, gutxi gorabehera:

Foroa kolektibo eta pertsona gehiagori zabaldu behar zaio. Adostu dute foroko kide bakoitza (edo bere kolektiboa) foroan parte har lezakeen beste kolektibo batekin harremanetan sartuko dela, foroaren berri emateko eta forora etortzera gonbidatzeko.

Foroaren batzarren berri emateari buruz, Getxoberrin laburtuta argitaratzeko eskatu du, Ingurumenari buruzko espazio batean, edo separata gisa egunkariaren barruan. Aktak internet bidez argitaratu beharko lirateke halaber, udalaren Ingurumeneko webgunean. Proposamen hauek onartuta zeuden, eta udalak haiek gauzatzeko konpromisoa hartuta zuen.

Era berean, erabaki da foroa hilean behin bilduko dela, udan izan ezik.

**4. Autorik gabeko Eguna ospatzeko ekarpenak eta iradokizunak (irailak 22)**

Ekologistak Martxan erakundeak zenbait jarduera proposatu ditu Europako Mugikortasun Asterako. Jarduerak Ingurumeneko Tokiko Foroak antolatuko ditu eta udalak laguntza emango du. Funtsean bi hitzaldi-eztabaida lirateke, hirigintzari eta mugikortasun iraunkorrari buruzkoak. Ekimen honen alde egitea erabaki da. Bestalde, datozen asteetan foroak eta udalak elkarrekin jarduerak antola ditzatela erabaki dute.

Era berean, Jose Almeidak idazki bat aurkeztu du Getxo Enpresa eta Merkataritza elkartearen

**3. Continuar con el diseño del Plan de Trabajo del Foro: calendario de reuniones, temas a tratar, representación del Foro, etc.**

Además de los acuerdos establecidos en la anterior reunión del Foro, se deja este tema para tratarlo de forma preferente después de las vacaciones de agosto. En la presente acta se recuerda los acuerdos establecidos en la anterior reunión del Foro, que son básicamente los siguientes:

Hay acuerdo en que se abra el Foro a más colectivos y personas, y se acuerda en que cada miembro del Foro y/o colectivo del que forma parte, conecte e informe a cada colectivo susceptible de participar en el Foro para invitarle.

En cuanto a la difusión de las reuniones del Foro, se solicita se publiquen en el Getxoberri a modo de reseña en un espacio destinado a Medio Ambiente, bien en una separata dentro del periódico. También debería estar plasmado el trabajo, las actas via internet, en la página de Medio Ambiente del Ayuntamiento. Estas propuestas, ya estaban contempladas y en vías de llevar a la práctica desde el Ayuntamiento.

Así mismo, se acuerda en que las reuniones del Foro tengan una periodicidad mensual, salvo en la época estival.

**4. Aportaciones y sugerencias para la celebración del Día Sin Coche (22 de septiembre)**

La organización Ekologistak Martxan propone una serie de actividades a realizar durante la Semana de la Movilidad Europea organizadas por el Foro Local de Medio Ambiente y con la colaboración del Ayuntamiento consistente básicamente en 2 charlas-coloquio sobre Urbanismo y Movilidad Sostenible. Se está de acuerdo en impulsar esta iniciativa y se acuerda en que durante las próximas semanas se organicen estas actividades entre el Foro y el Ayuntamiento.

Asimismo Jose Almeida presenta un escrito desde Getxo Empresarial y Comercial con una

izenean, zenbait proposamen eta iradokizunekin:

1) Igandean egitea.
2) Zama-lanetarako ordutegia luzatzea.
3) Programatutako jarduerak erdigunean ez dauden edota komertzialak ez diren eremuetan egitea.

Horrela, “Autorik gabeko Egunak” udalerriko enpresetan izaten dituen ondorio kaltegarriak (batez ere ekonomiaren ikuspegitik) arinduko lirateke.

serie de propuestas y sugerencias:

1) Se realice en domingo
2) Mayor horario posible para carga y descarga.
3) Realizar las actividades programadas en zonas no céntricas-comerciales,

al objeto de reducir y paliar los efectos y consecuencias negativas, fundamentalmente económicas, que la celebración del “Día sin coche” causa a las empresas del municipio.

## GALDERAK ETA ESKAERAK

Jon Gallastegik galdetu du Punta Galea inguruan bidegorria egiteko proiektuarekin aurrera egiten ari ote den, gai honetaz hitz egin baitzen aspalditxo.
Erantzun diote ez dagoela ezer gai honetaz.
Bestalde adierazi du Azkorritik quadak ibiltzen direla.
Informazioa aintzat hartuko da.

Bukatzeko, Dimas Ramosek Telletxen eskudela jartzeko eskatu du, Algortako metro geltokiaren ondoan, zona horretan dagoen arriskua dela-eta.

21:30etan batzarra bukatutzat eman da.

## RUEGOS Y PREGUNTAS

Jon Gallastegi pregunta si sigue adelante el proyecto de un bidegorri en la zona de Punta Galea del cual se habló hace tiempo. Le confirman que no hay nada al respecto.
Por otro lado manifiesta que le han comentado que van quarz por Azkorri.
Se toma en cuenta la información.

Para finalizar, Dimas Ramos solicita se coloque una barandilla en Telletxe, junto al metro de Algorta, por el peligro que existe en la zona.

A las 21:30 horas se da por finalizada la reunión.